

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA

## 845

*9/2023 EBAZPENA, otsailaren 7koa, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko lehendakariarena, enplegua egonkortzeko ezohiko prozesuan onartutako eta bazter utzitako izangaien behin-behineko zerrenda onartzen duena, Herri-Kontuen Euskal Epaitegian Letratua lanpostua betetzeko.*

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren abenduaren 1eko 71/2022 Ebazpen bitartez (abenduaren 29ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 248. zk.) lehiaketa bidez lanpostua egonkortzeko ezohiko prozesua deitu zen, karrerako funtzionario moduan Herri Kontuen Euskal Epaitegian letratu plaza bat betetzeko; lanpostu hori 2022ko ezohiko Enplegu Publikoaren Eskaintzari dagokio, eta salbuespenezkoa da.

Herri Kontuen Euskal Epaitegian enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuen oinarri espezifikoa eta oinarri orokorretan aurreikusitakoaren arabera arautuko da hautaketa-prozesua. Oinarri horiek azaroaren 30eko 67/2022 Ebazpenaren bidez onartu ziren (2022ko abenduaren 28ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 247. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, eta oinarri orokorren seigarren oinarriko 2. atalean ezarritakoaren arabera, bidezkoa da Lehendakariaren ebazpen bidez, prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzea. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren iragarki-oholean eta web-orrian argitaratuko da. Interesdunei 10 eguneko epea emango zaie erreklamazioak aurkezteko eta bazter uztea eragin duten akatsak edo agiriak zuzentzeko. Aurreikusitako epean zuzenketa-eskerik aurkeztu ezean, behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da.

Hori guztiori aintzat hartuta,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea enplegua egonkortzeko ezohiko prozesuan onartutako eta bazter utzitako izangaien behin-behineko zerrenda, Herri Kontuen Euskal Epaitegian letratu lanpostua karrerako funtzionario gisa betetzeko, ebazpen honen eranskinean jaso dagoen moduan.

Bigarrena.– Argitaratzea onartutako eta bazter utzitako izangaien zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren iragarki-oholean eta web-orrian.

Hirugarrena.– Interesdunei 10 eguneko epea ematea erreklamazioak aurkezteko eta bazter uztea eragin duten akatsak edo agiriak zuzentzeko.

Laugarrena.– Zuzenketa-eskerik aurkeztu ezean, behin-behineko zerrendak behin betiko bihurtuko dira.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 7a.

HKEEko lehendakaria,  
ANA HELGUERA LÍBANO.

HKEEko idazkari nagusia,  
JULIO ARTETXE BARKIN.

2023ko otsailaren 17a, ostirala

## ERANSKINA

LANPOSTUA: LETRATUA

## ONARTUTAKO IZANGAIEN ZERRENDA

Dokumentua	Abizenak eta izena
***7154**	Chaparro Toledo, Amaya
***6347**	Dominguez Atxalandabaso, Javier
***5704**	Elexpuru Iturri, Itxaso
***4339**	Garro Lejarraga, Maddi
***9522**	Loyarte Villar, Garazi
***5545**	Martis Amigo, Jose Manuel
***7524**	Zalduendo Telleria, Jon

## BAZTER UTZITAKO IZANGAIEN ZERRENDA

Inor ere ez.